



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko apirilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko apirilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2024ko martxoaren 29a

Afitzatze eguna : 2024ko martxoaren 29a

8. ERABAKIA: XERRENDIA ETXE MULTZOKO 3. ATALAREN ESLEIPENA (7.10 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio Xerrendia etxe multzoko 3. atala eskuragarri dela. Oroitarazi ditu, baita ere, etxe multzo horren atalen saltzeko baldintzak.

Ortzaizeko biztanleei jakinarazi zaie atal hori eskuragarri dela herri aldizkariaren bidez, eta hautagaitza gutunak eskuratu ditugu herriko etxean.

Auzapezak eskaera guztien aztertzea proposatu dio Herri Biltzarrari.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberaturik,

- **ERABAKI DU**, honako atalaren saltzea:

- 3. atala LAFUENTE Andoni jaunari saltzea - 45 183.38 euroan zergaz kanpo,

- **ZEHAZTU DU**, salmenta planoen egitea, eskuz aldatzeko eta notario gastuak eroslearen gain direla,

- **AGINDU DIO**, Auzapezari, atalen saltzeko beharrezkoak diren izapide guztien egitea, besteak beste atalen saltzeko notario akten izenpetzea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 15

Balitzko boz kopurua : 15

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko apirilaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/04/19an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/04/19an.